

# Bigarren globalizazioa: amaieraren hasiera?

**Roberto Manjón Lozoya**  
Hizkuntza-normalizazioko teknikaria

Zibilizazioen gainbehera kohesio soziala galduz hezurramitzen da, eta antzeko zantzuak erakutsi izan ditu historian barna. Globalizazio heleniar-erromatarraren dekadentziak eta gaurko globalizazioak ezaugarri nagusi batzuk partekatzen dituzte, baina gurearen dekadentziak berezko zertzelada batzuek moldatzen ditu. Nolanahi ere, bietan nabaria da makro-gizarte globalak ezin duela eduki euskarri gisa behar lukeen makro-erkidegorik eta, beraz, gaurko globalizazioak ezin duela hondamendia ekidin. Alternatibek iparrorratza, greziar *polis*-a izan liteke, eskualde-buru izan zenez, eta guretzat are interesgarriago, antzinako Grezian bezala, eremu etniko zabalago baten oinarri.

**GAKO-HITZAK:** Globalizazioa · Zibilizazio-gainbehera · Kohesio soziala · Indibidualizazioa · Eskualdea.

Civilizations fall into decline when they lose social cohesion. That decline has shown similar characteristics in history. Thus, the Greco-Roman globalization and the current globalization show similar signs of decay, but with its own peculiarities. In any case, it is clear that global macro society can not be sustained by a global macro community, and this is the cause of its fall. The Greek polis was also the head of a region, and therefore, as a concept, could be crucial for alternative movements, not to mention it was also the focus of union of a defined ethnic background.

**KEY WORDS:** Globalization · Decay · Social cohesion · Individualism · Region.

*Jasotze-data:* 2010-09-07. *Onartze-data:* 2010-09-27.

Gustukoa ez dugun zibilizazio honi begiratzen diogunean, sarritan etsipenak jotzen gaitu. Badirudi amaierarik gabeko gau bat dela. Natura maite badugu, susmoa dugu aro honetan ez dela eraso basterik egongo; euskaldun irautea bada gure nahia, kapitalismoak ez digu aukerarik emango. Hitzak eta hitzak, propaganda, ez gaitezen engainatu. Eta agian indarge sentitzen gara. Zibilizazioak akabatuko gaituela dugu zirrara. Globalizazioa garaile eta betiko. Betiko?

## 1. Gehiegikeria: arrakastagatik ere hiltzen da

Ziur aski, hamaika motibo daude argi-izpiak ere nonahi antzemateko, baita etsipenetik ere. Kapitalismo oligopolikoa, noski, ez da betirako. Aitzitik, dekadentzia-zantzu argiak erakutsita, berez hiltzen ari da, bizi den orori agintzen zaion bidea eginez. Gure zibilizazioaren hondamendia ikuspegi askotatik aztertzea badago ere, kausa guztiak antzinako hitz batez labur daitezke: *hybrisa*, alegia, gehiegikeria, harrokeria, muga eza. *Hybrisa*, antzinateko jainko grekoek gogorrenik zigortzen zuten (*nemesis*) jokabidea.

Gaur egungo globalizazioak aurrekari bat du garai helenista erromatarrean, gutxi gorabehera, Kristo aurreko IV.etik osteko V.a arteko aldirian. Globalizazio biek oinarritzeko arazo bertsuei egin behar diete aurre: etengabeko hazkunde ekonomiko ezinezkoari, boterearen kontzentrazio jasanezin eta harrapaketa etengabeari, metropolizazioari, herritarren urrutze politiko-sozialari, indibidualismo edo ideal nahiz xede kolektiboen galerari eta, beraz, kohesio sozial ezari, eszeptizismoari, hedonismo kontsumistari. Eta lehenengo globalizazioari eusteko erabilitako metodoek, hala nola autoritarismo politikoak, kontsumismoan oinarritutako kontrol-mekanismoek, errepresio militarrek, huts egin zuten bezala, itxaron daiteke bigarrenean ere antzera geratzea. Faktore horiek guztiek kolapsora daramate mundu globalizatua, lehenengo globalizazioa, alegia, Mazedoniar inperioa eta haren ordezkia, erromatarra, eraman zituzten bezala.

Sistema kolapsora doalako ideia argiro edo zeharka aurki daiteke globalizazioarekin kritikoa diren autore gehienetan. Kasurako, gogora ditzagun Joxe Azurmendik (1988: 230) Santamariaren lumatik ekarritakoa:

Se vendrá abajo esta civilización, se vendrá abajo como los muros de Jericó.

Izan ere, Santamariaren aburuz, gaurko berekoikeria dekadentziaren zeinu garbia da, hondatzen ari den itsasontzi bateko marinelen lema: «Nork bere burua salba dezala». Gainera, haren ustez, gizakia ahul sentitzen da, ezer aldatzeko boteririk gabea, barneratuta baitauka errealitatea ezin duela aldatu: ezin da ezer egin, gera gaitezen etxean (1998: 234-235). Laster ikusiko dugu globalizazio helenistiko erromatarrek giro berdintsu batean jo zuela behea.

Etsipen eta ezintasun-sentimendu horiek XX. mendeko iraultza eta utopia salbatzaileek huts egin ondoren ageri dira, baina, orobat, utopia marxistaren erortarekin batera, neurri berean egin du porrot utopia kapitalistak berak ere. Apika norbaitek uste du gaurko globalizazio oligopolikoa bat datorrela noizbait Adam Smith-ek antzemandako kapitalismo ongilearekin? Bestalde, iraultzaren porrotak inolaz ere ez du zurkaitzen eraitsi nahi izan duen sistema. Dakigunez, Espartakoren matxinadak Inperioa irauli ez zuen arren, azkenean, Erroma errekan amaitu

zen eta, ziur aski, Espartakoren erreboltak ere zeharkako zerikusia izan zuen, Inperioa hondamendira eramango zuen konponbide militarren nagusitasuna indartzen lagundu zuen heinean. Nolanahi ere, gizateria noraezean doa, jitoan eta etengabe hazi nahian.

## 2. Globalizazio heleniar-erromatarra gaurkoaren aurrekaria

Globalizazio garaikidea eta antzinatekoa ez dira berdinak, noski, baina giza-kiok, oro har, berdintsu jokatu izan dugu historian zehar. Beraz, ondorio berdintsuak aurreikus genitzake. Jakina, konparazio historikoak beti dira arriskutsuak, baina giza jokabideetan, historian ageri diren joerak ez antzemateak begirada historikoa eta soziala alferreko egiten ditu. Zuhurtzia eta ausardia, biak beharrezko. Paradoxa izan arren, historia ez da errepikatzen eta etengabe errepikatzen da, zeren gizakiok bizi ditugun egoera motak eta haien aurreko erantzunak ez baitira mugagabeak, bereziak garela pentsatzeko ohitura badugu ere. Juan Luis Condek dioen bezala (2008: 15-18), prozesu eta gertakari historikoak ez dira atzean geratzen azpian baizik: gure garaiari eusten dion lurzorua izanik, gurekin bizi da. Historiak, zentzu batean, ez du aurrera egiten, konprimitu egiten da geruza berriak gainean jarri ahala.

Autore honen iritziz, arazoak ez dira guztiz amaitzen ez hasten. Gaurko arazoak beste arazo batzuen mutazioak dira, agian zertzelada batzuekin. Gatazken aurpegia aldatzen denez, berriak dirudite, baina hurbildik ikusita, antzekotasunak azaltzen dira. Esate baterako, AEBko eliteetan ohiko bihurtu da Estatu Batuak eta Erroma erkatzea (Conde, 2008: 23). Erromako intelektualek eta militarrek esanak aztertu eta AEBkoen gaurko diskurtsoekin konparatuz gero, begi-bistan geratzen da batzuek eta besteek estrategia berdintsuak erabiltzen dituztela, arrazoi, mozorro, aitzakia eta gezur antzekoak, parekatzeko moduko egoeretan. Adibidez, Erromak inperioa zabaltzeko erabili zuen diskurtsoa, funtsean, AEBrena da: gerra bakearen alde egiten zuten, aliatuak barbaroengandik babesteagatik. Horretarako, prebentziozko gerlez baliatu ziren, eta Zizeronek esan zuenez, gerlarik gerla, munduaz jabetzen joan ziren. Menderatutako nazioak *aliatu* bihurtu zituzten, Mazedoniako Alexandro Handiak lehenago jorratutako ildo beretik.

Horretaz gainera, filosofiaren eta teoria politikoen historiari begiratu bat emanez gero, bai eta garaiko gertakari eta prozesu historikoei ere, Mazedoniar inperiotik erromatar inperioaren jausiraino doan bidea ikusita, ohartuko gara antzekotasun handiak partekatzen dituztela orduko eta gaurko globalizazioek. Horrela, datozen lerroetako aipamen historikoak ia bete-betean alda daitezke gure egunetara.

### 2.1. Aldi helenistikoa

Mazedoniak K. a. IV. mendearen bigarren zatian greziar inperioa eratu zuenean, haren eraginez sortutako metropolien mendean erori ziren hiri-estatuak (*polis*-ak). Independentziaz gainera, beren buruaz zeukaten konfiantza eta segurtasuna galdu zuten. Boterea metropolietara urrunduta, hiritarrek partaide izateko aukerak galduta, ideal zibikoa (Platon eta Aristoteles arteko pentsamendua) aienatu zen. Ordura arteko pentsamenduan pertsonen betegintzarrea komunitateko bizitzarekin zegoen lotuta: bizimodu onak parte-hartze politikoa eskatzen

zuen<sup>1</sup>. Inperioarekin etika irauli egin zen: ondasuna intimitatean bilatu behar zen; pertsona jakintsuak ez zuen politikarekin harremanik eduki behar, eta zoriontasuna mundu pribatuan eta ideal indibidualetan bilatu behar zuen. Honela laburtzen du José María Cabok (2004) aldaketa sakon hori.

Aristoteles da munduari bozkarioz begiratzen dion azken filosofoa, ez baitzen indarge sentitzen estatuaren aurrean. Ondorengo guztiak babes bila dabilta. Filosofiaren zeregin nagusia gizabanakoari bizitzan nola jokatu erakustea izango da. Garai hartan sentitu zuten munduak ihes egiten ziela, ezinezkoa zela hari eragitea. Gaur bezala, pentsamendu ahulak sortu ziren, mundua eratzeko proiektu orokorrik ez duten ideologiak.

Herritarraren orde z gizabanakoa agertu zen. Aldi berean, gizaki berri hori, gizabanakoa, problema bihurtu zen, eta horrela, gatazka, herri eta estamentu sozialen artekoa izatetik pertsonen artera eta pertsonen barrura lerratu zen. Ondasun ugariagoen eta teknika garatuagoen artean, bizitza gatazkatsuagoa, larria-goa, ezegonkorragoa egin zen, gaur egun bezalatsu<sup>2</sup>.

Gizartea indibidualismora lerratu zen. Pentsamendu filosofikoak nahiz erlijiozkoak gizabanakoaren salbamendua izango zuten xede. Horrela, arima espirituala eta beste mundua asmatu zituzten. Konpromiso politikoaren xedea alde batera utzita, idealismoz berdindu nahi izan zuten indibidualismoaren ondorio gaiztoa: gizabanakoak, xumea bazen ere, arima indibiduala zuen, bakoitzarena berezia, errepikaezina... Bakartasun eta larridurari aurre egin beharrez, Ekialdeko erlijioen mistika eta magiaren laguntza izan zituzten beste mundu bat irudikatzen. Ez zaukaten telebistarik, gure telesail parapsikologikoez, *poltergeistez*, *reality showez*... gozatzerik.

Globalizazio hark ere metropolizazioa eragin zuen (Alexandria, Antiokia, Pergamo, gero Erroma, Bizantzio...). Jakina denez, metropolietan inor ez da bertakoa, ez inongoa. Horrela, gizabanakoarekin batera, kosmopolita ere sortu zen, alegia, *munduko herritarra*, inongoa ez dena. Aniztasuna orotan izan zen nagusi, bai kulturari bai hizkuntzari, metropoliak arrapaladan sortutako bilgune heterogeneoak zirenez. Kultur aniztasun eta konplexutasun sozial nahiz ekonomikoaren ondorioz, talde-erreferentziak, identitate kolektiboak ahuldu ziren. Munduko herritarraren amarruak, ordea, ez zion jendeari identitatearen galera konpondu, abstrakzioak ez baitzuten benetako erreferentziarik eskaintzen, baina tresna aparta izan zen Inperioaren botere metropolitarraren harentzat. Izan ere, Inperioak herritartasun global bat behar zuen asmo inperialista zuzitzeko eta hedadurari eusteko, hots, ideologia globalizatzaile bat. Kosmopolitismoa eta kultur aniztasuna boterearen kontsignak izan ziren, orain bezalatsu

---

1. Hala Aristotelesekin nola Platonekin argi zeukaten hiritartasuna zela ondasunetik handiena. Aristotelesekin beti pentsatu zuen hiri-estatu zela Zibilizazioaren antolakuntza osasuntsu eta zutabe bakarra.

2. Dekadentzia ez dago garapen zientifiko eta teknologikoarekin kontrajarrita, ez eta artearen sofistikazioarekin ere. Honela, arte helenista barroko samarra da, forman oparoa. Zientziekin pauso handiak egin zituzten aurrera, halako moduan non atalka lantzeari ekin zieten. Erakunde zientifikoak, museoak eta liburutegiak antolatzen ziren hiririk handienetan. Ikerkuntza matematikoak, medikoak eta fisikoak biziki aurreratzen zuten. Gaur bezala, espezializazioaren garaia izan zen eta, aldi berean, geziari espirituaren jarrera orokor zalea galdu.

Metropolizazioak, indibidualismoaz, kultur aniztasunaz eta kosmopolitismoaz gainera, erlatibismoa, eszeptizismoa, eklektizismoa ere bere ezaugarrien artean ditu. Ohitura, erritu, kultur balio, hizkuntza desberdin askoren talkak erlatibismora eta eszeptizismora eraman zituen herritarrek. Dena eztabaida zitekeen. Dena zen egia eta gezurra. Funtsik ez zegoen, ez bermerik, dena zen konbentzionala, ezer ez zegoen ondo edo txarto, ikuspegiaren arabera, sofistek erakutsi zuten.

Eta zergatik kezkatu etorkizunagatik, bakarrik hil behar badugu eta ez badaukagu ezer sinesterik? Gozatu orainaz. Hedonismoa ere globalizazioaren eskutik. Askorentzat, plazer indibiduala izan zen bizitzaren xedea, talde edo gizartearekiko mendekotasunetik libre (autarkia). Bertutea atsegina lortzearekin lotu zuten, bai fisikoa bai espirituala. Horretan Zireneko eskola gailendu zen.

Greziar hiri-estatuak eta haien kultura zibikoa hondatuta, aginteak eite autoritarioa hartu zuen. Alexandro hil eta gero, zenbait gune metropolitanoren inguruan antolatu ziren ordezeko botere politikoak: erresuma helenistak. Gizarte-koheresio faltaz, herrien nahasketak larriagotuta, garaiko monarkiek absolutuak izan behar zuten nahitaez, ez baitzegoen beste modurik horrelako anabasan gobernatzeko. Erregea eta estatua identifikatu ziren, bera baitzen herritarren bizikidetzat bermatzeko baliabide nagusia.

## 2.2. Aldi erromatarra

Inperio berriak zaharraren ildotik jardun zuen. Erromak bereganatu zituen inperio helenistikoaren hondarrak, eta globalizazio-prozesua biziberritzeari ekin zion. Baina inperio berria eratzeaz batera, Erroma barrutik hustuz eta endekatuz joan zen.

Oparotasunean, botere ekonomikoa esku gutxitan bildu zen, zeren armadaren buruek, senatariak eta probintzietako agintariak etengabeko harrapaketa ekin baitzieten. Herritarrek lurra galdu zituzten latifundio handien mesedetan. Horren ondorioz, Behe Inperioan desberdintasun sozialak sakondu ziren.

Errepublikak erabat erori zen diruaren eta militarren mendean. Kohesio soziala galduta, botere politikoa inoiz baino autoritarioagoa bihurtu zen. Matxinada eta gerla zibilen ondorioz, tirania nagusitu zen I. mendean, Julio Zesar eta Oktabio Zesar Augustogandik aurrera. Augustok errepublikaren itxura gorde zuen, baina aberats handiek eta, batez ere, militarrek agintzen zuten. Aristotelesen oinarritzeko ideia bat berriro ere frogatuta geratu zen: demokrazia, egotekotan, berdinaren artean bakarrik izan daitekeela.

Erkidegoaren kulturak bere indar integratzailea galduta, errepresioarekin batera, erlijio bat behar zen boterea sakralizatzeko, enperadorea baitzen herria kausetik gorde zezakeen bakarra. Gainera, naturaz gaindiko biziraupena aldarrikatzen zuten erlijio asiarrek, kristaua barne: beste mundu baten kontsolamendua eskaintzen zioten gizabanako larrituari. Estatuak horrelako erlijio ofizial bat behar zuen. Greziar eta erromatar erlijio tradizionalak gehienbat zentzu mitiko eta errituala zuten, beraz, komunitarioa. Asian, ordea, erlijioek adabakiak eta txertoak sortu zituzten etsipenari buru egiteko: heriotzaz beste aldeko bizitzaren itxaropena. Hori zen errito misterioaren eta kristautasunaren mezu nagusietatik bat. Behe

Inperioan, K.o. IV. mendean, enperadoreek hori ere ulertu zuten: Ekialdeko erlijio batek lagunduko zuen armadaren kohesioari eusten.

Egoera konplexu hartan, joerak, nolana ere, kontrajartzen ziren. Mistikarekin batera, aberaste ekonomikoak ahalbidetutako hedonismo kontsumista ere izan zen dekadentzian sorgortuta bizitzeko beste aukera bat. Gogoratu dezagun Pertroniok *Satyricon* eleberrian, jada I. mendean, deskribatzen duen Erromako giro dekadentea, batez ere libertoei, alegia, garaiko burgesiari leporatuta. Azkenean, dena alferrik. Inperioak berezkoak zituen gaitzak ezin gainditu. Aberastasunaren erdian, erromatarrak, grekoak bezala, erlijioso, eszeptiko, ezkor, hedonista, indibidualista, eskapista bihurtu ziren.

Lehenengo globalizazioaren irakaspenen bat azpimarratu nahi nuke hondamenditik aurrera atera ziren taldeen ezaugarriak aztertu ondoren. Alde batetik, gizataldeetan, etnia batzuk, herri germaniarrak, barbaroak, nagusitu ziren; bestetik, pentsamendu, ideologia edo erlijio mailan, kristautasuna. Zergatik? Bertran Russell-en (2005: 377) eta Mircela Eliade-ren (2004-II: 479) iritziari jarraituta, hipotesi bezala onartu behar genuke, giltzarrietatik bat kohesioa eta identitate handia direla.

### 3. Bigarren globalizazioaren disoluzio-bideak

Egungo globalizazioa, Mendebaldeko bigarrena, kapitalismo oligopolikoaren garaikoa da. Aurrekoaren azterketa arina eginda, ohartu gara inperioak barrutik desegiten direla, indar zentrifugoen ondorioz, ezarian, ustekabean, hamaika borroken artean, kolapsatuta, kaosean, eta gainbehera hori oraindik ondasunez gainezka dagoenean has daitekeela. Ildo horretatik, gaurko giroan dekadentziaren sintoma bertsuak antzeman daitezke:

- Botere ekonomikoaren kontzentrazio eskerga eta kapitalaren harrapaketa mugagabea.
- Erakundeen eta gizartearen arteko haustura, fikzio demokratikoa, herritarren atxikimendu eza erakunde eta bizitza zibilarekiko.
- Kohesio sozialaren galera, indibidualizazioa, subjektibismoa.
- Kultur anabasa eta identitate indartsuen krisia.

Kapital oligopolikoek, batez ere botere finantzarioek, erromatar legioetako jeneralen antzera, ikusten duten guztia, herritarrak barne, ustiatzeko moduko objektutzat daukatenez, harago eraman nahi dute harrapaketa, eta etekinik handiena lortze aldera, Europako ongizate-gizartea eraitsi nahi dute kosta ahala kosta, etekin handiagoa lortuko duten itxaropenaz. Are gehiago, harrapariak beren burua arriskuan ikusi dutenean, gobernuak herritarren diruaz hornitu dituzte. Sakela bete bezain laster estutasunean jarri dituzte estatuak eurak, eragindako defizitaren kontra berriro espekulatzen hasita eta langileak eskubide eta berme gabe uzteko eskatuta. Gainera, krisia baino lehen oligopolio finantzarioak gai ziren munduko hainbat estatu desegonkortzeko, eta orain, antza denez, krisiaren ondorioz

indartuta atera dira gobernuen kaltetan<sup>3</sup>. Bestalde, gogora dezagun Max Weber-ek burokratizazioa jotzen zuela Modernitate kapitalistaren ezaugarririk behinena artean (Azkarraga, 2006). Globalizazio oligopolikoaren aldian, ezaugarri hori abstrakzio gisa hezuramaitzen da. Beraz, kapitalismo globala erabateko deshumanizazioaren bila haziz doa. Herritarrak gero eta nekezago identifikatzen du ustiatu eta langabeziara botatzen duen gorputza.

Horrekin batera, Augustoren garaian bezalatsu, gero eta nabariagoa da erakunde politikoen izaera demokratikoa fikziozkoa dela. Politika estruktural berdintsuak dituzten alderdi politikoek lehiatzen dute gobernu eskuratzeko, eta, oro har, antzeko ikuspegia dute gizarte, ekonomia eta garapenari buruz. Esan daiteke Mendebaldeko gizartean alderdi bakarreko sistema politiko batean bizi garela, eta partidu bereko fakzio desberdinei baizik ez diegula botoa ematen. Agian, errealtatea hori baino narrasagoa da. Arian-arian, alderdi bakar hori ere desagertzen doa. Egun, begi-bistan dagoenez, politika estrukturalen nondik norakoa kanpotik erabakita etortzen zaie gobernuari, botere ekonomikoaren interesak babesteko politikak koordinatzen dituzten erakundeetatik (NDF, Munduko Bankua, Europako Bankua...). Gobernuak, arian-arian, botere horien mendeko zerbitzu-emaile huts bihurtzen ari dira, polizia, haiek behar duten lehengai nagusia, herritarrak, prestatzeko, administratzeko, kontrolatzeko eta erreprimitzeko.

Botere militarra protagonismoa irabazten ari da mundu osoan, eta orobat, aldi berean, kontrol politikoa eta disidentearen errepresioa egiturazko izaera hartzen ari dira gizartean. Kapitalismo oligopolikoarentzat *askatasuna* kontsumo-produktu desberdinen artean aukeratzeko ahalmena da; aldi berean askatasun politikoaren kontra jotzen du, sistemaren oinarriak astintzeko arriskua ikusten duen heinean. Merkatu librean, garapenaren eredia eta ekonomiaren etengabeko hazkundera gaitzesten dituenak *terrorista* epitetoa merezi lezake.

Benetako boteretik urrundu ahala, herritarrak gero eta urrunago sentitzen dira erakunde eta erkidego mota guztietatik. Joera, berriz, urrundik dator, Errenazimentuan hasi eta Ilustrazioarekin eredu bakarra bihurtu den individualismoaren ondorio zuzena denez gero. Lotura komunitarioak galduta, gizabanakoa, garai heleenistako erromatarrean bezala, indarge, ezgai eta ezereza sentitzen da urrunak eta gero eta abstraktuagoak diren botereen aurrean. Horrela, hainbat gizagaixo iheska dabil kontsumismo, hedonismo, espiritualismoaren bideetan.

---

3. Azken krisiak, 2009koak, argiro erakutsi utzi du oligopolio finantzarioen ahalmen izugarria eta jarrera. Oligopolio finantzarioek eragin politiko eskerga dute, banku zentraletan, erakunde politikoetan eta komunikabideetan, bereziki AEBn eta Britainia Handian. Horrela, arauak ezabatuz, AEBko merkataritza-bankuen eta inbertsio-bankuen arteko legezko mugak desagerrarazi dituzte. Horren ondorioz, merkataritza-bankuek inbertsio-bankuen eragiketa espekulatibo arrisksuak egin ahal izan dituzte, eta horren bidez, aurrezkiileen aurrezkiak espekulatzaileren eskuetan jarri. Langileek aurretutako dirua galdu eta espekulatzailerek irabazi eskergak. Jakina, aurretik Kongresu amerikarrak finantza-deribatuen desarautzea ere onartu behar izan zuen. Horrekin batera, AEBko banku zentralak interes-tasa baxuei eutsi izan die artifizialki. Politika guztia finantza-sektorearen alimaleko hedapena lortzera bideratu da, industria eta ekonomia errealetik aldenduz. Horrek kontsumoa sustatu du etengabe, herrien benetako gaitasunaren gainetik eta nahiz eta langileen errentak ez igo. Testuinguru horretan asmatu eta ibilarazi dute kapitalismoarentzat hilgarria omen den diru mota bat, *diru kutsatua* delakoa, alegia, 2009ko krisi larria eragin duten ekoizkin zikinak, *subprime* hipotekak barruan eraman dituzten produktu *sofistikatuak*. (Zelaia, 2009: 177-184)

Honezkero, identitatea, gure psike eta egonkortasun emozionalaren funtsezko euskarri den hori, problema larri bihurtu zaigu, ez nazionalismo handien intelektualek aldarrikatzen dutenez, gehiegizko atxikimendua dagoela-eta, identitate-atxikimenduen galeragatik baizik, identitate-atxikimenduak ahuldu ahala ziurgabetasuna eta larridura handitu baitira. Erakundeetan galdutako konfiantzak zerikusia du, noski, baina baita denbora azeleratuaren eskutik ezin bizkorrago geratzen ari diren aldaketek eta haiekin lotutako kultura eta herrien nahasketek ere. Bigarren globalizazioaren intelektualek, lehenengokoen antzera, asmatu dute anabasa modu positiboan izendatzeko berba: kultur aniztasuna. Konforme egon behar, gainera, hibridazio interesatu eta asimilatze gaitz den horrekin, pentsamendu zuzenetik aldenduko ez bazara<sup>4</sup>.

Horiek horrela, munduak ez du zentzurik gizabanakoarentzat, definizioz, gizabanakoa lotura-ezabatzeetik sortzen denez. Max Weber gogora ekarrita, esan genezake arrazoi instrumentalaren guztizko garaipenaren ondorioa dela: guztia efikazia eta etekinaren arabera, izaki oro, gizakia barne, menperatu eta ustiatzeko objektu. Arrazoi moral edo substantiboa, balio lotesleak, amaitzeaz daude. Fenomeno nagusiek kohesio sozialaren galera daroate, eta hortik, gizarte barruko tentsioa eta indarkeria emendatzera. Luis Rojas Marcos (1998) psikiatrak luze-zabal aztertu du arazoa. Haren ustez, era askotako indarkeria agertzeak erakusten du gizarte desintegrazteko bidean doala, balio lotesleak huts egiten dute eta. Izan ere, gaurko gizarte globalizatuan larriagotzen ari da industrializazioaren hastapenetik datorren arazo bat, hiru mekanismo integratzaile nagusiek huts egiten baitute: gizabanakotik harago doazen balioek (kontsensu transzendental), interes materialak partekatzeak (aurrerapen materialaren sinesmena), nazio-kontzientziak. Deserrotze-prozesuaren ondorioz, Durkheim-ek deskribatutako *anomiaren* mehatxua dago. Anomia gaitz sozial jakin bat da, gertatzen dena oinarritzko beharrian psikologikoak, hala nola identitatea, autoestimua eta segurtasuna, ase gabe geratzen direnean. Erorketa hori kultur euskarriek, arau moralek eta gizartean jokatzeko arauak huts egitearen ondorioa da.

Bauman-ek dioskunez (2008), norabide horretatik, gizarte bere izaera estrukturala galduz doa. Hasi gara gizarte matrize ireki bezala ikusten, aleatorioki aldatzen den konexio eta deskonexioen sarea, mugarik gabe alda daitekeena. Gizarte likido bihurtzen ari da, sendotasunik gabea. Pertsonen arteko loturak (lanekoak, familiakoak, lagunartekoak, auzokoak...) behin-behinekoak dira, aldatkorak, hauskorak. Egoera beti da arriskutsua, beti lehiatu behar da, etengabe toki irabazi, nor garen baieztatu guri eta besteei.

Hortaz, bigarren globalizazioaren dekadentzia-zantzuak, funtsean, antzekoak badira ere, gure garaiari dagozkion moduan hezurramitzen dira. Zertzelada horien azterketari ekingo diot hurrengo lerroetan, baina betiere ikuspegi soziokultural eta sozio-politikotik.

---

4. Eta harrigarriena, inoren xenofobia salatzen gailentzen diren asko nola ibiltzen diren musulmanei euren kultur eta erlijio ikur nabariaren erabilera galarazten, duintasuna eta askatasuna ezpata bezala erabilita, eta jakina, hitz horiei mendebaldeko kultura indibidualistan ematen zaien edukiarekin. Era berean, gaztelania askatasunaren izenean inposatzen dute. Hori guztia, ordez, ez da fenomeno isolatu bat. Mundu osoan ari dira gatazka etnikoak pizten eta lazgarri bihurtzen, talde nagusiak, espainiarra kasu, gutxiengo kulturalak ezabatzeko ahaleginetan.

### 3.1. Indibidualizazioa eta arriskuaren gizartea

#### 3.1.1. Indibidualizazioa

Kohesio soziala indibidualizazio-prozesu baten eskutik galtzen ari da, Euskal Herrian bertan, balio sozialen gaineko Europako IV. inkestak, 2008an bildutako datuen arabera (Elzo eta Silvestre, 2010), erakusten duenez. Herritarrek gero eta gehiago nahi dute gizartea beren nahierara antolatzea, beren mundu pribatua ez konprometitzea, parte-hartze eta ardura publikorik ez izatea. Eta, aldi berean, Administrazioari gero eta gehiago eskatzen zaio, gero eta segurtasun handiagoa eskatzen da, Estatuaren aldetik gero eta babes handiagoa. Herritarrek gero eta gutxiago kezkatzen omen dira ingurukoengatik. Lehen baino urrunago sentitzen dira eskualdearen identitateak (Euskadi edo Euskal Herritik, kasurako), baina, orobat, Espainiaren edo Europaren nortasunetik. Jakina, maldan behera doa politikaren gaineko interesa.

Ulrich Beck eta Elisabeth Beck-Gernesheim-ek (2003) hainbat artikulutan garatu dute gai hau. Diotenez, mende askotan komunitateari atxikita sortu eta bizi izan gara. Orduan, arriskuak taldearenak ziren. Gizakiak emanda zeuzkan herria, klase soziala, lanbidea, ikasketa mota eta maila, senide eta adiskideekiko harremanak, familiako rola eta generoaren arabera, jateko modua, aisialdi mota, janzkera... Gizakia espeziaren kontzeptu bat zen: euskalduna, baserritarra edo artisaua, aita... Osotasun bat zatitu eta azken atomoa gizabanakoa zen, baina betiere osotasunaren kontzeptupean. Komunitateak landa ez zen ezer, ulertezina zen, desbideratua. Gaur egun, ordea, bakoitzak ahaleginak egin behar ditu zerbait eta norbait izateko, irabazi egin behar du hori, bere burua baieztatuz, inguru lehiakor batean bere burua zurkaiztuz, arriskuan, jakinda edo susmatuta, oparotasunaren irudiaren atzean, amildegia zain egon daitekeela.

Indibidualizazioa aspalditik badator ere, horretan datza gaur egun. Gizabanakoak, egun, bere burua eraiki behar du, proiektu bat egin bere bizitzarekin. Eta horretarako, lehen emanda zeukana galduta, hautatu egin behar du aukera anitzen artean: identitatea, erlijioa, ezkontza, etxeko lanak, adiskideak, senideak, gizarte-loturak. Errutinek funtsezko garrantzia dute bizitzan, gizarteak emandako lerroetan bizitza errazten digutenez gero: ez daukagu zertan ibili funtzioak, rola, identitateak... negoziatzen. Orain, aitzitik, dena zatietan erabaki eta negoziatu behar du gizabanakoak, aukera anitzen artean. Bizimodu tentsiodun horrek erresumina, babes-erantzun eta erantzun oldarkorrak eragiten ditu.

#### 3.1.2. Frustrazioa

Oparotasun materialaren ordainean, pertsonak tradiziozko loturetatik askatu ondoren (klasetik, familiarik, auzotik, nazio edo eskualde-kulturatik...), bakarrik geratu dira lan-merkatu eta gainerako merkatuen aurrean, bakarrik eta ikaratuta. Izan ere, langileek, galdutako identitateen artean, klasearena ere galdu dute. Klase-kontzientziarik gabeko kapitalismoan handitu egin dira desberdintasun eta bazterte sozialak, langileen sakabanaketak erraztuta. Tradiziozko segurtasunak ez ezik, eskubideak ere aienatuz doaz. Enplegu malguak enplegu hauskorra eta baldintza eskasak esan nahi du. Guztiarekin ere, herritarrek desberdintasun temati horiek ez dituzte klase-arazotzat jotzen, alegia, arazo komunitariotzat, historiografia partikular baten gaitzat baizik.

Horrela, etikan, duela bi mila urte bezala, egun norberaren errealizazioa da iparrorratza: egizu zeure burua. Eta horra hor sistemaren amarru nagusietatik bat: arazoak, arriskuak, kolpeak kolektiboki ematen direlarik (botere ekonomiko politikoetatik), gizabanakoen egoerak ez dira batere partikularrak, estandarrak baizik, eta, hala ere, pentsamendu postmodernoak arazoei indibidualki heltzeko etika inposatzen du eta bestelako ikuspegiak gaitzetsi: etnizistak, identitarioak, atzeratuak, funtsean, antidemokratikoak, eta agian, filoterroristak.

Krisiak gero eta gutxiago antzematen dira bere izari sozialean, gizabanakoa tematuta baitabil bere bizitza bizi nahian. Horiek horrela, gizabanakoak pertsonaltzat jotzen du bere porrota, ez klase bateko kide denez, baita lanpostua galdu edo gaixotzen denean ere. Geure bizitza bizi nahi dugunez, porrota ere geurea. Balio-sistemak gero eta gehiago azpimarratzen du betebeharrak norberaren buruarekiko direla. Hauxe bihurtu da kontrol-mekanismorik arrakastatsuenetarikoa bat: arazoak desgizarteratuz psikologizatzea. Psikiatren pagotxa.

Kontrolak, ordea, ez dute sistemaren segurtasuna bermatzen. Gatazka-guneak zatitu, gehitu eta dibertsifikatu dira: ideologikoak batzuk, sasiberdintasunari dagozkionak besteak (arraza, kolorea, etnia, adina, sexu-jokabideak, elbarritasunak...).

Bestalde, arrakasta pertsonala identifikatzen omen duten elementuek, hala nola diru-sarrerak, ikasketek, estatusak... jada ez dute betetzen autobaieztapen pertsonalaren premia, ez eta bizitza bete-bete baten desira ere. Jendeak, zalantza eta ziurtasun ezen artean, zapuztuta, inguru hurbiletik kanpo bilatzen du bizitza bete-bete baten promesa, munduko azken muturretara bidaiatuz hain zuzen.

Gainera, giza egoera guztiak anibalenteak izanik (Paniker, 2009), zenbat eta indibidualizatuago orduan eta berdina edo estandarizatuago. Itxuraz bakarrik erabakitzen dugu geure bizitza nola eraiki. Funtsean ez dago aukera liberrik. Bere buruari begira bizi den gizabanakoak ez du ikusten ez duela baldintzarik bere erabakiak hartzeko, eta egia bakarra dela bere biografia arriskuen artean garatzen ari dela. Norberaren bizitza bizitzeko itxaropenak talka egiten du muga eta erresistentzietekin. Zapuzketak, gero eta handiagoak, erantzun bortitzera eraman dezake gizabanakoa. Indarkeria hori bereganatzeko ideologia edo mugimendu iraultzailerik apenas dagoenez, inguruarekiko bortizkeria itsu bihur daiteke, gazte-mugimendu ultren norabidean. Arriskuan oinarrituta biografiak, eguneroko bizitzaren presioaren mende, hazi paregabea dira bortizkeriarako.

### *3.1.3. Ongizatea, kontrola eta porrot biologikoa*

Ongizatearen gizarteak lotura komunitarioen kontrako albo-efektua izan du, Estatuak familiaren babesetik landa erraz eramateko moduko bizimodu bat bermatu duenez. Ondorioz, familia-loturak laxatu eta motak ugaltu dira.

Egoera horretan, umeak desira eta arazo bihurtu dira, zapuzketarako iturria. Egun, seme-alabak ez dira norberaren bizitzako ezinbesteko zatia, zati naturala. Nork bere bizitza izateko etikak agintzen duela kausa, biziki handitu da familiatik kanpo eta gizonekin ibili gabe umeak izan nahi dituzten emakumeen kopurua. Nork bere bizitza antolatzea eta umeak ekartzea, ordea, kontrajarritako aukerak

dira, baina gatazka horrek ez du ezabatzen umeak izateko gogoia. Umeek ez dute laguntzen lanbide-arrakasta lortzen edo enpleguari eusten, eta horiek dira lehentasunak.

Zahartzea eta hiltzea ere arazotsuago ditugu oraindik orain. Familia tradizionalaren gainbeherarekin batera zahartzearen arazoa ere larriagotu da, gero eta zaharragoa den gizarte batean hain justu. Zaharrek zailago dute familian integraturik jarraitzea, ongizatea, aldiz, oso lotuta dago familia-harremanen jarraipenarekin. Bestalde, batez besteko adinak gora egin ahala, gero eta gehiago dira zaintza behar duten pertsonak eta, beraz, gaixotasun kronikoak pairatzen dituztenak. Familiaren krisian, tradizioan familiak izandako ardurak entitate abstraktu bati, gizarteari edo estatuari, eskatzen zaizkio. Baina teknologiak eta gizarte-segurantzak ez dute bizitzaren amaiera duin baten eskakizuna betetzen.

Paradoxikoki, gure zibilizazioa, Thanatosetik ihes, indibidualizazioaren eskutik, inoiz baino sakonago erortzen ari da haren altzoan. Komunitatearekiko transzendentzia ororen sinesmena galdu dugunez, etsipenez, gizabanakoari bere bizitza ahalik eta gehien luzatzeko sasi-itxaropena baizik ez zaio geratzen, heriotzaren beldur tragikoan. Osasuntsu egotea da salbazio bakarra. Gainera, logika eta sinesmen bakartzat ondasunen ekoizpena duen gizarteak osasuna exijitzen digu. Horregatik, gero eta gehiago bizi gara gure gorputza nola zaindu, iraunarazi eta, horrenbestez, nola planifikatu kezkatuta. Gorputza, biologia ere aukeren eremua bihurtzen ari da, negoziazorako tokia, arriskuen zelaia. Hortik dator kirurgia bidez gorputza manipulatzeko joeraren hazkundera ez ezik, osasuna, planifikazioa eta ingeniari-tza genetikoaren aliantza. Jokabide horrek gorputza kanpoko kontrol sofistikatu batzuen mende jartzera garamatza, manipulazioa fisiko biologikoaren mendera, halako moduan non boterea bere dimentsio biologikoa zabaltzen eta sendotzen baitabil, geure zelulak ere bere esku-hartzearen ikusmiran jarrita. Heriotzaren beldurrez, gorputza ere arrazionalizazio edo plangintza ilustratuaren objektu preziatu bihurtzeko bidean doa.

Hortaz, paradoxikoki, norberaren bizitza izateko etika indibidualistaren garaian, Zibilizazioak bizitzaren oinarri biologikoak ere estandarizatzeko joera erakusten du, giza genomaren laguntzaz. Azkenik, indibidualizazioak gizabanakoa desegin eta erakunde txotxongilo bilakatzera daroa, osasun-erakunde publiko nahiz pribatuak gero eta gehiago arautu eta kontrolatzen baitute gure bizimodua. Erakunde tradizionalen tokia hartuta, gizarte-kontrola harago daramate<sup>5</sup>. Izan ere, norberaren bizitza izatea erakundeekiko guztizko menderakuntzan bakarrik gerta daiteke, alegia, norberaren bizitza ukatuta, otzantasunez, bizimodu guztiz globalizatu batean.

### **3.2. Kultura eta identitatea**

Gizartearen errutinak ezabatuta, egin behar dugun aukera bakoitza (erlijioa, ezkontza, etxeko lanak, adiskideak, senideak, gizarte-loturak) identitate-hautapen

---

5. Ilustrazioaren berezko logika da: naturaren aurrean, jainko baten antzera eta erabilgarritasuna balio nagusi izanik, dena menderatzea, arrazionalizatzea, planifikatzea, ikuspegi produktibista batetik, aniztasun guztia eredu bakar batera murriztea. Faxismoa Ilustrazioaren logikatik dator, ez salbuespen batetik (Horkheimer eta Adorno, 2009).

jakin bat bihurtzen da, eguneroko bizitzan nor garen baldintzatzen duten hainbat gairi datzekie eta: jatekoari, janzerari, aisiari... Horregatik, *askatasunaren kultura* omen da kultura postmodernoa, baina finean, esteka eza da, huts-hutsean, askatasuntzat jotzen dena. Norberaren bizitza ez da bizitza desberdin bat, estandar bati darraiona baizik. Kulturak bizitza independente bat garatzeko diosku, betiere Estatuak eta lan-merkatuek aginduta bezala. Izan ere, gizabanakoa gero eta arautuago eta planifikatuago dago, makro-erakundeen menpe, indar gero eta abstraktuagoen mirabe, pertsonalismoz mozorrotutako anonimatuan.

Kolektibismo subjektibista batean bizi gara Erdi Aroko kolektibitate objektiboaren orde. Indibidualismoa goren da, industrialki kultibatu, baina ideiak, aukerak, balioak gizarteak ezartzen dizkigu. Pertsonaia batean bizi gara, eta pertsonaiak ezartzen dizkigu keinuak, mozorroa, jokabidea, non ibili, zer erosi. Masa-gizartea da gurea. Ezarri digun rola inkonformismoaren konformismoa da. Jainkoa hil ondoren gizakia ere hil eta gizaki estatistikoa sortzen ari da (Azurmendi, 1998: 171-172).

Identitatea krisian dago, pertsonala eta kolektiboa, jakina, esteka komunitarioak hondatzen ari direlako, baina ez horregatik bakarrik. Ilustrazioaren logikak berak euskarri guztiak ukatu eta ezabatzen ditu, eta gizakia jainkotasun arrazionalaren ordezkari eginda, ez du inon aterperik edo atsedeen-lekurik aurkitzen. Dena mugitzen zaio inguruan, eta gero eta abiadura bizkorrago batez. Azkenik gizakiari bere kontsumo-gaiekin identifikatzea baizik ez zaio geratzen («Kaiku naiz», «La Mutukoa naiz»). Larridura estali behar duten ordezkari identitate horiek, nahitaez, zatikatuak, aldakorak eta ahulak dira.

Globalizazioaren eskakizunetan hausturetatik eta anabasan eratzen ari diren kulturak, oro har, lehiaketan, iragankortasunez eta partzialtasunez sortzen dira. Kultur produktuak masen kontsumoko salgaiak dira, iragankorrak, etengabe berriak, etengabeko jario batean. Produktuak berak nahaspila izaten dira, berriak eta originalak. Eklektizismo osoz eskainiko zaizkigu azken belaunaldiko teknologia eta kultura indigena baten zatiak, ohiko kultura-gaiak, etnikoak, osagai unibertsal eta tokikoekin. Izan ere, kultura eta identitateak salgai huts bihurtu dira, euren jatorrizko zereginetik bereizi eta modu egokian diseinatu ondoren, hots, izan duten funtzioa eta zentzua kenduta.

Merkatuaren legeak kontsumitzeko kultura egokiak sortzen ditu, hibridoak, iragankorrak, osotasunik gabeak, orain arte kulturek izan duten osotasun eta soslai markatuagoen orde. Kultura puzzle bihurtzen da. Osagaiak ez dira egonkorak eta koherenteak, iragankorrak eta zatikakoak baizik, toki gehienetan berdintsuak, baina tokian-tokian halako ukitu berezi bat izaten dute: ukitu horrexek egiten ditu *bertoko*. Kultur salgaiak *bizi-estiloak* sortzen dituzte. Identitate ahulak, tribalak sortzen dira, sendotasunik gabeak baina pasioz defendatzen direnak.

### 3.3. Demokrazia eta ideologiaren porrota

Antzinaroan bezala, gizabanakoa eta herritartasuna aurkaritzan daude. Ondasun komunaz ez arduratzeko joera du, guztien ongiaren aurrean eszeptikoa edo zuhurra. Bere burua ez du ikusten erkidegoaren subjektu politikotzat. Indibidualizazioak, beraz, azpia jaten dio herritartasunari. Garai batean eremu publikoa

betetzen zuten kezka komunitarioen ordez, gizabanakoen kezka jabetu dira eremu publikoaz, are gehiago, gizabanakotasunean oinarritutako arazoentzat da legitimitatea. Eremu pribatuak publikoa azpiratzen du. Individualizazioak azpia jaten dio demokraziari.

Motibazioak ere guztiz pribatizatzen ari dira. Gero eta usuago, gizabanakoek eremu publikoan jokatzea erabakitzen dutenean, ez da izaten ondasun komuna hobeto kudeatzeko kezkatik edo elkarrekin hobeto bizitzeko printzipioengatik —ez lehengo neurrian behintzat— bakartasunetik ihes egin eta besteekin konektatzeko premiagatik baizik. Horregatik, hala edo hola, intimitatea partekatzea bihurtzen ari da nolabaiteko erkidegoak —erkidego hauskorrak— sortzeko zio nagusia.

Gizakia, bere bakartasunetik, eta botere erraldoi ahalguztidunen aurrean ezgai, alternatibak bilatzen dituenean, ideologia ahulak sortzen ditu: partzialak, subjektibistak, apolitikoak, leunak, otzanak, botere politikoaren arazoari itzuri egiten diotenak, funtsean, aldarrikapenak gorabehera, kontsolamendu bidez gizabanakoari bizitza eramangarriago egin nahi diotenak. Ez da marxismo-leninismoaren aroa. Abertzaletasunek bakarrik erakusten dute erresistentzia-puntu gogor samar bat; izan ere, Zibilizazioak huts egiten duen ardatzari aurrez aurre begiratzen baitiote.

Ideologia ahuletatik, intelektualek, eta administrazioek, sasikonponbide idealistak proposatzen dituzte: arazoak, eta haien oinarrian dauden problema soziopolitiko edo sozio-ekonomikoak, pentsamenduaren bidez gainditzea. Kultur aldaketa omen da giltzarria, bestela esanda, balioetan hezteak. Hori dela kausa, ia mundu guztia, nolabait, hezkuntzari begira jartzen da. Hezkuntza ardatz. Eta ideologia ahulen paradisuan, global-neoliberalak pentsamendua bera ezabatzeko eskatzen digu: zeure bizitza izan, alegia ekoitzi eta kontsumitu. Gobernu, boteredun elkarte, batzorde, nazioarteko erakundeek ikuspegi nagusia.

Pentsamendu globala guztiz instrumentala da; ez du etorkizuna planifikatzen ez pentsatzen; epe laburrari begiratzen dio, denbora gutxian etekin handia ateratzeari. Etengabeko hazkunde ekonomikoa da haren legea, merkatua haren liturgia, historiaren ikuspegi transzendentala (aurrerapena) erreferentzia mitikoa, judu-kristaua. Transzendentzia hori ere, ordea, alboratzen ari da gogoetarik gabeko pentsamendua, eta orain historia bera ukatuta, helmuga eta mugarik gabeko indarraren fikzioan bizitzen hasi da: geu, arrazoia, kosmosa antolatzen duen demiurgoa. Berriro ere anbibalentzia eta paradoxa: ilustrazioa, natura menderatu nahirik naturaren guztiz meneko bihurtu da, indar itsuen herabe.

Jainko judu-kristaua, bere eskatologian, baikorra izan zen: historiak amaiera izango zuen. Baina aurrerapena, ideia baikor hura, historiaren amaierara eraman behar gintuzkeen salbazio-bidea, zorientasun baten promesa izatetik etengabeko oinaze baten mehatxua izatera hurbiltzen ari da: betiereko aldaketa ekidinezin bat, atsedean gabea, krisi eta tentsio agortezin batean. Izan ere, greziar jainkoek, argiagokoak izanik, patu horretaz ohartarazi gintuzten historiaren hasieran, heroi zibilizatzaileen bidez, hots, Prometeo eta Sisiforen eskutik, argi utzi baitziguten gure *hybris*-agatik izango genuen amaierarik gabeko zigorra.

### 3.4. Indarkeria

#### 3.4.1. Banakoaren mailakoa

Ikusi dugunez, segurtasun eza da gizarte globalaren ezaugarri nagusietatik bat, baina ez bakarrik oinarri materialei dagokienez. Beldurra harago doa. Hiriak beldur eta segurtasun ezaren arabera diseinatzen dira. Antzinaroan, etsaia komunitate kanpotik zetorren; orain, komunitaterik gabe, etsaian nonahi dago. Hiriek kanpora begira eraikitzen zituzten harresiak eta bestelako defentsak; gaurko hiriek barruan sartzen dituzte: sarrera eta bide debekatuak, kontrolak, armadun segurtasuneko zaindariak, poliziak, kamerak, metal-detektigailu eta x izpidunak, alarmak, ate blindatuak... Dena normala iruditzen zaigu. Segurtasunaren adizioa dugu. Harresiek ematen zuten segurtasuna orain urbanismoak eta arkitekturak ematen dute, beste herritarrengandik babesten gaituzte eta. Hainbat ate itxita, hainbat toki debekatuta, metropolietako hainbat auzotara ezin sartuta, sarritan autobide batek edo beste azpiegitura handiren batek argiro marrazten du muga.

Rojas Marcosek dioenez (1998: 107-205), gizartearen desantolatze-prozesuetan, balio kulturelek behea jotzen dutenean, kulturaren funtzio arautzaile-kontrolatzaileak huts egiten du. Orduan jokabide bortitzen hazkondeak gora egiten du. Erkidea, auzokidea... *bestea* bihurtzen da, jasanezina, arerio. Hiritan nabariagoa da gertakari hori, eta zenbat eta handiagoa hainbat eta larriagoa. Beraz, Metropolizazioak bortizkeria areagotzen du. Izan ere, desantolakuntza sozialaren osagaiak nabariagoak dira hirietan, hiriak gizarte-gatazkak eta identitate-zalantzak gehitzen baititu.

Hiri-ingurumenak mugikortasun mota guztiak sustatzen ditu eta, beraz, baita lotura eta sustrai sendoak galtzea ere. Hiri handiek etengabeko eta denetariko fluixuen mendean daude. Loturen galerak eta indarkeriak ekar elikatzen dutenez, atzeraelikatu egiten den higadura bat gertatzen da. Bortxakeria desberdintasun ekonomiko handiek eta asmo individual eta aukeren arteko desorekek bultzatzen dute, alegia, metropolietako ohiko egoerek, eta izugarri biderkatzen da arazok desberdintasun etnikoekin, estres ekonomikoarekin eta populazio-dentsitate handiekin gurutzatzen direnean.

Guztiatik ere, indarkeriaren arazoa pribatutzat hartzeko joerak, hots, gai sozial edo politikoetatik kanpokotzat, bide ematen dio zentzurik gabeko bortxakeriari, halako moduan non adingabekoen delinkuentzia kezka orokor bihurtu baita hainbat metropolitan. Gure etxe ondoko etsaiak inork baino gehiago izutzen gaitu, arrazoi argirik gabe hil gaitzake eta. Arrazoirik gabeko indarkeria da beldurgarriena. Horregatik, ahalegin handiak egiten dira nolabaiteko azalpena aurkitzeko, baina kasu askotan ez da gaixotasun mental baten ondorioa. Besterik ezean, erasotzaileak «antisozial» edo *soziopata* kategorian sailkatzen dira. Hustasun afektibo handi batek ukitutako pertsonak izaten dira, izugarri aspertuak, bizitzaren hutsalkeriak harrapatutakoak, adore eta bihozgabetuak, erresuminduak. Zentzazio intentsuak bilatzen dituzte konpulsiboki, eta ez dute erraz lortzen, estimulazioaren atalasea oso altua dutenez. Botere nartzisista esperimentatzen dute biktima kontrolatuz, sufriaraziz, umiliatuz. European ez da ohikoa, baina agertzen hasi da, batez ere oso gazteen artean.

Buru-hilketena ere gora doan gaitza da. Guraso nartzisistengandik ume malenkoniatsuak. Zenbait arrazoi deskribatu dira, baina gehienen oinarrian gizartearen kohesio-galera dago. Sarritan, absolututzat hartutako gizabanako nartzisistaren estrategiak huts egitearen ondorioa da, eragingarritasuna eta erakarmena galtzen ari baitira hala prepotentzia, nola gutzizko askatasun eta eskubideen aldarrikatzea, edo diru eta kontsumoaren lilura. Badirudi bortizkeriak zirkuitu bat osatzen duela, buru-hilketa gehien duten estatuak eraiketa gutxien dutenak baitira, eta alderantziz.

Indarkeriak, bestalde, izutu ez ezik, liluratu ere egiten gaitu. Erroma dekadentean bezala, herritarrek gero eta estimulu sendoagoak behar dituzte bizitza hutsalak betetzeko, sentsazioen bidez sorgortuta egoteko. Indarkeria ikuskizun aparta da duela bi mila urte bezala, eta urrezko aroan dagoela dirudi, zine, telebista eta bideo-jolasei eskerrak, rol-jokoak ez aipatzearren. Gustuak, ordea, bilakatu dira, altruismoz mozorrotutako bortizkeriatik sadismo hutsera, eta hortik indarkeria zentzugabe eta nartzisista hutsera. Psikiatra ospetsuaren aburuz (Rojas Marcos, 1998: 165-185), hedabide horietatik eskuratzen dugun indarkeria kopuru eskergak gizakion sen sadikoa asetzen du, hots, botere- eta menderakuntzarenahia. Haren irudiko, telebistak herritarren gustuari erantzuten dio.

### 3.4.2. Etnikoa

Bigarren globalizazioak badu aurrekotik garbiro bereizten duen ezaugarri konplexu bat, edo gutxienez, muturreraino eraman duen ezaugarria: abstrakzioa. Elkarren artean lotutako hiru faktorek (Appadurai, 2007: 52-53) ematen diote gaurko globalizazioari bere aurpegi berezia:

- Finantza-kapitalaren izaera espekulatiboa, bizkorragoa eta abstraktuagoa. Hein handi batean ez dago aberastasuna sortzeko tradiziozko moduei lotura, hots, ondasunen fabrikazioari.
- Informazioa bizkortzea, eta espazio nahiz denboraren ohiko parametroetatik aldentzea. Horrela, informazioaren fluxua, dirua barne, arau eta protokoloetatik kanpo geratzen da.
- Aberastasuna sortzeko moduak hain dira konplexuak ezen ulertezinak eta misteriotsuak gertatzen baitira gehien-gehientzat.

Faktore-multzo batek gizartearen ziurgabetasuna handitzen du, hala nola diru-fluxu opako, arauz kanpokoek eta, horiekin bat, enplegu eta aberastasuna sortzen duten modu abstraktuagoak, eta herri, eskualde nahiz estatutik gero eta urrunago gertatzen diren prozesuek. Arazoa, beraz, arriskuaren gizarteak berez dakarrena baino larriagoa da: enplegua galtzen duzunean, agian, ez duzu nori leporatu, non eta ez den finantza-higikortasun globalari. Kapitalismo gero eta abstraktuago horrek gizabanakoaren ezintasun-zirrara nabarmenki handitzen du, langileak gutxiago baitaki nork ustiatu eta kalera botatzen duen.

Globalizazioa ezin duzu hil, baina ondoan bizi den gutxiengo etnikoa bai (Appadurai, 2007: 65-66). Beraz, talde *errudun* horrek abstrakzioetik aldentzeko aukera ematen du, globalarekiko beldur abstraktua zerbaitetan gorputzeko aukera emanaz. Auzokoaren gorputza astinduz konjura dezakegu globalizazioak dakarren

ziurgabetasuna, etengabeko berritasuna, nahasketa. Beraz, gutxiengoaren kontrako eraso konkrezioaren aldeko ekintza ere bada. Eraso zenbat eta hurbilago egin eta materialagoa izan hobeto, eguneroko harremanetan txertatua eta gorputzari zuzendua: auzokoa, laguna, senidea hiltzea edo mutilatzea. Gogora dezagun 1990eko hamarkadan munduko hainbat tokitan gertatu diren etnozidio odoltsuak, gure garaian ordura arte ezagutu den indarkeriaren erabilerarik bortitzenetarioak.

Baina, kulturaz hitz egitean esan dugunaren ildotik, globalizazioaren mugimendu azeleratuak (zirkulazioaren aldiberekotasunak eta intentsitateak, espazioaren ezabaketak) ziurgabetasun soziala larriagotzen du, haren eskutik gai materialek eta ideologikoek ere gure espazio mugagaitz honetan ziztu bizian agertu, desagertu edo eremua zeharkatzen dutelako. Horrekin batera, migrazio handiek eta, beraz, herrien nahasketek, kultur aniztasuna delakoak, ziurgabetasuna biziagotzen dute. Nahasketa etniko arinek zalantzak eragiten dituzte herritarren nortasunari buruz: lausoago dago gu nor garen eta besteak nor diren. Gutxiengoek ziurgabetasuna sortzen dute nazio-nortasun eta nazio-herritartasunari buruz.

Aitzitik, jakina denez, bortizkeriak asko laguntzen du herriak, identitateak hezur-mamitzen eta, beraz, globalizazioaren ziurgabetasunari aurre egiteko tresna bihurtzen da. Etnozidioak ere erkidegoa sendotzen du. Ziurgabetasun etnikoak, sozialari gehituta, garbiketa etnikoaren desira biziki elikatzen du. Gutxiengo etnikoak porrot indibidualaren eta kolektiboaren (nazioaren) sinbolo edo metafora bilakatzen dira.

Hori guztia Modernitatearen hasieratik datorren esparru ideologiko eta kultural batean kokatzen da: nazio-estatuaren esparru kontzeptualean. Gaur egun botere politiko eta kulturalak sarritan ukatzen duen arren, nazio-subiranotasuna etnizitatean dago oinarrituta. Diskurtso nazionalaren erretorikan oso presente dago etnia berezia estatuaz janzteko egon diren pairamen eta sakrifizio handiak, gerlak alegia. Globalizazioak, berez, nazio-subiranotasuna estutzen duenez, estatuetako eliteak presionatzen ditu herritarren interes nazionalen defendatzaile gisa ager daitezen.

Appaduraik dienez (2007: 22), pentsatu ohi denaz oso bestera, demokrazia liberalak etnozidioaren hazia daroa bere baitan, berezkoa duelako gehiengokeriaren ideologia, *maioritarismoa*, gehiengo eta gutxiengoaren arteko dinamikan bermatzen denez. Gizartea arrazionalizatzeko modu horrek, nazio-estatuaren etnizismoarekin elkartuta, *osatugabearen* larridura eragiten du herritarrengan, gutxiengoek gehiengoari eten gabe gogorarazten diotelako tarte betetzeko duela betegintzarrea lortzeko, nazio osoa, erabateko, garbia izateko.

Globalizazioak, ziurgabetasun sozialaren logika eta osatugabearen logika elkartera daramatzez, izugarri areagotzen ditu indarkeria-leherketa handietarako baldintzak, logika biok elkarri elikatzen baitiote bakoitzaren potentzialtasun suntsitzailea. Orduan, indarkeria kolektiboak, taldearekiko guztizko konpromisoa eskatzen duenez, ziurtasun kolektiboa sendotzen du. Biktimak, martirrak, heroiak... euren konkrezio materialean, abstrakzio eta ziurgabetasunaren aurkako liberazio bihurtzen dira. Eraso-bideak eta ekintzak erritualizatzen diren neurrian, gorputz material horiek osagai erlijiosoa sartzten dute, kontrastez, globalizazioaren eremu izugarri abstraktuetan.

### 3.4.3. Agintearena

Erroman bezala, autoritarismo politikoa haziz doa, eta murrizten ari da herritartasunaren alderdi zibilaren osagaiak: eskubideak eta parte hartzeko moduak. Parlamentarismoak berezkoa du partaidetzaren (demokraziaren) simulakroa, baina simulakro berorregatik eta gizartearen konplexutasunaren ondorioz, zenbait eskubide eta partaidetza-eremu onartu behar izan du, aldarrikatutako balore batzuen frogagarri. Globalizazioa sakondu ahala, ordea, herritarrak gune erabakitzaileretatik urrundu eta arrisku motak nahiz esparruak gehitu ahala, agintekeria eta errepresioa ere haziz doaz.

Joera lehenagotik bazetorren ere, AEBko 11S jauzi garrantzitsu bat izan da. Handik aurrera *terrorismo* hitzak estatuaren kontrako zeinahi mugimendu edo ekintza definitzeko balioa bereganatu du. Izan ere, horixe izan da ekintza gogoangarri haren ondorioz nabarmenatariko bat. Etsaiari «sare terroristak global» izena eman zaionetik, izendapen lauso horren kariaz, estatu bakoitzak aukera izan du bere barruko arerio sare mugagaitz horrekin identifikatzeko (Appadurai, 2007: 30-48). Naziotik kanpoko gerlen eta barrukoen arteko muga lausotu da beraz. Horren aitzakiaz eskubide zibilak murriztu eta kontrol-neurriak gehitu eta gogor dira estatu gehienetan, sarritan, harik eta ordura arte funtsezkotzat jotako babes konstituzionalak berrinterpretatu eta edukiz hustu arte. Aldi berean, polizien erasokortasunak eta askatasunak ere gora egin dute, kidego errepresiboen hornikuntza, prestakuntza eta babes legala sendotzeko ekimenekin batera. Nolanahi ere den, autoritarismo mota horrek ere erakusten du herritartasunaren heriotzara heltzen ari garela.

### 3.5. Globalizazioaren eta zelulartasunaren arteko talka

Disidentziaren aurkako gerlak, ostera, globalizazio honetan badu berezko aurpegi bat. AEBk lehenengo unetik argitu zuen bezala, terrorismoaren aurkako gerla mundu mailako sistema biren arteko talka ere bada: mundu antolatuen eta zelularren artekoa hain zuzen. Bigarren globalizazioak, giza fenomenoaren anbigualtasunak, mundu-antolakuntza zelularra sustatzen du garatu ahala. Botere agintarien mundu egituratuaren mega-antolakuntzarekin guztiz lotuta azaltzen da gune zelular sakabanatuen eraketa-prozesua. Sare terroristak zelularrak omen dira: autonomoak, koordinatuak, egitura bertikalik gabeak, deszentralizatuak. Antzekoak dira han-hemenka pizten diren mugimendu alternatiboak ere: sare txikiak, malguak, ia ikusezinak, ondasun gutxi dutenak, antzemateko zailak. Mugimendu horiek guztiak ez daude koherentziaz sinkronizatuta, sare terroristak delakoen antzera, baina premia dagoenean, goi-mailako teknologiaz baliatuz koordinatzen dira (Internet, facebook...)<sup>6</sup>.

Horiek horrela, atomizazioari esker, mugimendu alternatiboak, armatuak nahiz baketsuak, kontrolagaitz gertatzen dira. Gune zelularren ezagutza eta kontrola da mega-antolakuntzen kezka garrantzitsuetatik bat. Horrela, globalizazioaren ordenari nabari zaio alternatiba armatu nahiz baketsuen prebentzioari begira antolatzeke joera. *Terrorea* globalizazioaren eldarnioen artean dago kokatuta.

---

6. Bestalde, anbigualtasunak, zelulartasuna berezkoa du globalizazioaren antolakuntza kapitalista oligopolikoak ere. Nazioarteko itun eta erakundeen alboan, finantza-kapitaleak modu zelularrean ere erabakitzeko gaitzak, arauak ekidin eta eragiketarako ezkutatzearren.

#### 4. Konponbiderik?

Dekadentzia-zantzu argiak gorabehera, ez dakigu zibilizazio honen azken aldapak zenbat iraungo duen. Batetik, mendeak hamarkada bihurtu zaizkigu denbora azeleratu honetan, baina, bestetik, gure globalizazioan, sare mota guztiak askoz trinkoagoak dira aro helenistiko erromatarrean baino. Kontrolak ere handiagoak eta sofistikatuagoak dira nonbait. Gaurko hedonismo kontsumista teknologikoa da gero eta gehiago. *Ciborg* otzanak bihurtzen ari gara nonbait (Bengoetxea, 2009).

Guztiarekin ere, dakigunez, burbuila baten gainean bizi gara, ingurumen-hondamendiaren atarian, eta petrolioaz elikatuta, agortzeko zantzuak dituela. Petrolioaren ordezkorik aurkituko balitz ere, ez luke ingurumen-hondamendia geldituko, gure jarrera inguru naturala mugarik gabe ustiatzea denez gero. Zientzia-ezagutza, bizitza eta heriotzaren arbola debekatutik jan genuenetik, natura jarri nahi dugu geure esanetara.

Baikorrek espero dute Zibilizazioak bere norabidea aldatu eta hondamenditik urruntzea. Baina, gezur bitalak alde batera utzita, badago horretarako arrazoi-izpirik? Nik uste, historiak ez du erakusten gainbehera ekidin duen zibilizatorik. Zergatik? Seguruenik, gure adimena, gizabanako batzuen gorabehera, funtsean, animalia guztiena bezalakoa delako, instrumentala, begirada estrategikorik gabea. Aurrean daukagun probetxuari begiratzen diogu, ez bide horretatik etorkizunak dakarkigunari. Ez gara gai etorkizuneko xede orokor jakin bati begira eman beharreko pausoak aurreikusi eta gauzatzeko. Gainerako animaliek, aldiz, adimen instrumentala hobeto baliatzen baitute, muga jakinen artean biziz<sup>7</sup>.

Joxe Azurmendik Modernitatearen arrazoimen instrumentalaz luze-zabal dihardu *Teknikaren meditazioa* liburuan (1998: 204-260). Bestalde, Marxek erakutsi zuenez, gizakia ez da egiten duenaren eta etorkizunaren jabe, ez duelako historia bere kontzientziaren arabera egiten, behar objektiboek eginarazten dion modura baizik. Modernitatean bereziki, XVIII.etik aurrera argiago, arrazionaltasun teknikoa nagusitu da, utilitarista, moralik gabea, eragingarritasuna baitu xede. Ez du helburuei buruz eztabaidatzen.

Kolapsoak, nolana ere, orain arte ez dira munduaren akabera izan, zibilizazio batena baino, nahiz eta gure garaian hipotesi hori oso dudazkoa izan. Kolapsoaren ondoren, historian, kohesio handiko taldeak nagusitu izan dira, bere buruaz seguru sentitu direnak, agintariekiko mendekotasun kultural eta ideologikotik ere askeagoak.

Globalizazio helenista-erromatarren aldian, germaniar herriak eta kristauak atera ziren aurrera, partook Mesopotamian bezala. XXI. mendeko balizko kolapsoaren ondoren gizateriak iraungo balu, egon gintezke euskaldunak suntsipena gainditu eta handik indartuta aterakoen artean?

---

7. Weber-ek arrazionaltasun instrumentala eta baloratiboaren (estrategikoa) artean bereizten zuen. Historiak erakusten du, salbuespenetako gertakari batzuk gorabehera, instrumentala nagusi izan dela, nahiz eta gehiago edo gutxiago, kasuan-kasuan, besteak nolabaiteko oztopoak jarri. Azkenean, instrumentala erabat nagusi eta bestea ezabatzen denean, zibilizazioa amaierara heltzen ari da, ez baitu balio loteslerik.

## 5. Azken gogoeta

Zibilizazioaren gainbehera eta harago euskaldunok iraungo badugu, gutxie-  
nez, baldintzak zein diren jakin behar genuke. Horregatik, komeniko litzaiguke  
erkidegotasunaren oinarri sozialak, kulturalak, ekonomikoak eta politikoak zein  
diren zedarritzen joatea, aurrean ditugun erronken eta proposamenen aurrean  
(deshazkundera, kultur aniztasuna, independentzia, aurrerapenaren iraunkortasuna...)  
euskaldunen probetxurako nola jokatu jakiteko.

Antzinateko globalizazioak eta gaurkoak erakusten digutenez, gizartea eta  
erkidegoa ez dira bat bera. Globalizazioak makro-gizarteak behar dituzenez,  
makro-egitura eta antolakuntzak eskatzen ditu, baina ezin du makro-erkidegoa  
sortu horiei eusteko, are gehiago, badirudi makro-gizartea eta erkidegoa kon-  
trakarrean daudela. Orain arte deskribatutako guztiak hori ondorioztatzen dira.  
Aurkako printzipio horien arteko tentsioak gizarte globala barrutik desegiten du  
arian-arian. Urrats globalizatzailerako bakoitza pauso disolbatzailerako batek berdintzen  
du. Une batetik aurrera, estatua ere disoluzio-zantzuak erakusten hasiko da.

Hipotesi gisa aurreratuko nuke historian talde-kohesioa ez dela aberastasu-  
nean, bakean edo segurtasunean oinarritu, alderantziz baino: erkidegoak bizirik  
irauteko ezinbestekoa eskakizunen inguruan trinkotu dira taldeak. Eskastasun  
materiala eta defentsa izan dira taldekidetasunaren oinarriak. Aitzitik, oparota-  
sunak taldeak ahuldu eta zaugarri egin ditu. Bestalde, posible ote da eskasia  
talde edo erkidego handietan kudeatzea? Adibide historikoen erantzun negatiboa  
emango luketela dirudi. Zein da neurri egokia?<sup>8</sup>

Agian, antzinateko kontzeptu nagusi batzuk berreskuratu eta gaurkotu beharko  
genituzke. Giza errorerik bada, hobekuntza funtsean batean bil litezke: *hybris*,  
hantustea, mugetatik kanpo bizi nahi izatea, gure boterea eta ingurua mugagabeak  
eta betirako baliran. Ez genuke ahaztu behar guztiok patuaren mendekoak garela,  
baita Jainkoak ere, denok aldatu ezin ditugun muga batzuen artean bizi baikara,  
eta orobat, gogoan izan behar genuke hobekuntza, salbuespenik gabe, Jainkoek  
ordainarazten dizkigutela, alegia, naturaren indarrek edo botere kosmikoen. Aristo-  
telesek esango lukeen bezala, izaki bakoitzak bere legea du, eta lege hori ezin da  
bortxatu. Justizia, zentzu klasikoan, ordena ez urratzea da, denak bere tokia baitu,  
dagokiona. Beraz, zuzentasun edo kontserbadorismo pixka bat ere ez letorke txar-  
to. Eta mugen artean bizitzen ikasita, bakoitza leiala izan dadila bere herriarekin,  
Eolok, haizeen Jaunak lagundu diezaion.

Horretarako, erkideak bere burua hurbil ikusi behar du bere erakundeetatik,  
ordezkaritza sistematikoan erori gabe. Modu bakarra dago: erakundeok eguneroko  
bizitzarekin zuzenki uztartuta egotea, herritarrek, gizartea eratzen duten sare  
boteredunen kontrola, jarduera ekonomiko, politiko eta kulturalarena ez galtzeko.

---

8. Weber-ek zionez, nahikotasunaren kontzeptua izan da gizarte tradizionalaren ardatza, ez lan  
gehiago eta etekin handiagoa lortzea. Egin behar dena egiteko behar den denbora, eta beharrezkoa  
bermatuta dagoenean, orduan aisialdiari eman, ez aberastasun handiagoa bilatzeari, nahiz eta lanaren  
kontzeptuak bizitza osoa harrapatu (oporrik ez). Biziraupeneko ekonomia bat, ez industrialera eta lehian  
oinarritua. Benetako beharrezkoak determinatzen du esfortzu kopurua, eta beharrezkoak mugatuz  
esfortzua ere txikiagoa. Ordena aldaezina zenez, gehiago izateko gutziak ordenaren aurkako desira  
bekatuzkoa (Azkarraga, 2006: 62).

Giltzarria, eskualdea da, eskualdea antolamendu nagusien ardatz. Beraz, dialektikoki, gure garaira eta erara, hein batean, antzinateko *polis*-a ere berreskuratu beharko genuke, *polis*-a baita eskualdean oinarritutako antolakuntza historiko arrakastatsu bat. *Polis*-a izan zen herritartasunaren oinarria, *polis*-ean parte-hartzea baitzen ideal zibikoaren gailurra<sup>9</sup>. *Polis*-ak, bestalde, kontzientzia etniko komuna zuten herri batzuen (heleniarren) gune lotesleak ziren. Euskaldunentzat ere eredu?

Utopia da, noski, baina baliteke Zibilizazioaren kolapsoak amets egiteko aukera oparoa ematea. Nolanahi ere, utopiak badu zeregin funtsezko bat: norabidea erakustea. Jakina, eskualdearen gaineko boterezko egiturak zenbat eta ahulagoak izan orduan eta errazago izango da azpiko guneen arteko gatazkak, edonolakoak ere, gertatzea. Tirania batek beti ziurtatuko du giro baketsuagoa. Baina zer nahi dugu, bakea ala herriak emandako legearen araberako askatasuna? Soberakinak dauden bitartean klaseak eta gatazka bortitzak egongo dira. Hortaz, deshazkundera nahi badugu, noraino gaude prest ondasunetan urritzeko?

## Bibliografia

- Appadurai, A. (2007): *El rechazo de las minorías. Ensayo sobre la geografía de la furia*, Tusquets, Bartzelona.
- Azkarraga, J. (2006): *Modernitate kapitalistari kritika: Weber, Frankfurteko Eskola, Habermas*, UEU, Bilbo.
- Azurmendi, J. (1998): *Teknikaren meditazioa*, Kutxa Fundazioa, Donostia.
- Bauman, Z. (2007): *Tiempos líquidos. Vivir en una época de incertidumbre*, Tusquets, Bartzelona.
- Beck, U. eta Beck-Gernesheim, E. (2003): *La individualización. El individualismo institucionalizado y sus consecuencias sociales y políticas*, Paidós, Bartzelona.
- Bengoetxea, J. B. (2009): *Cyborgaren otzantasuna*, Elkar, Donostia.
- Cabo, J. M. (2004): "Filosofia politikoa", in J. Azurmendi, J. B. Bengoetxea, J. Garmendia eta I. Soto (arg.), *Filosofia gida. Filosofian aritzeko oinarriak: gida bibliografikoa eta metodologikoa*, UEU, Bilbo, 217-227.
- Conde, J. L. (2008): *La lengua del Imperio. La retórica del Imperio en Roma y la Globalización*, Alcalá Grupo Editorial, Alcalá la Real.
- Copleston, S.I., F. (1986): *Historia de la filosofía*, I. bol., Ariel, Bartzelona.
- Eliade, M. (2004): *Historia de las creencias y de las ideas religiosas*, II. bol., RDA editores, Bartzelona.
- Elzo, J. eta Silvestre, M. (2010): "Un individualismo placentero y protegido. Cuarta encuesta Europea de Valores en su aplicación a España", <[www.deusto.es/servlet/Satellite/Noticia/.../c0/.../render?](http://www.deusto.es/servlet/Satellite/Noticia/.../c0/.../render?)>.
- Ferrater, J. (2004): *Diccionario de filosofía*, Ariel, Bartzelona.
- Horkheimer, M. eta Adorno, Th. (2009): *Dialéctica de la Ilustración*, Trotta, Madril.
- H. Sabine, G. (1995): *Historia de la teoría política*, Fondo de Cultura Económica de España, Madril.

---

9. Aristotelesen ustez, *polis*-aren tamaina baldintza hauek mugatu behar zuten: buruaskia izateak, baina oinarritzko gaien esportazioaz eta inportazioaz baliatuz; herritarrei aisiaz gozatzeko aukera emateak, baina luxuan erori gabe; herritarrek elkar ezagutu ahal izateak; muino batetik osorik (bailara) ikusteko modua izateak. Platonek kopuru jakina ematen du: gehienez ere 5.000 bizilagun izan behar ditu.

- Paniker, S. (2009): *Aproximación al origen*, Kairós, Bartzelona.
- Peruarena, Mikel (2010-07-15): "Gutxiagorekin gehiago eta hobeto", *Berría*.
- Roberts, J.M. (2009): *Historia universal I*, RBA, Bartzelona.
- Rojas, Marcos, L. (1998): *Las semillas de la violencia*, Espasa, Madril.
- Rusell, B. (2005): *Historia de la filosofía*, RBA, Madril.
- Zelaia, A. (2009): *Politika ekonomikoaz*, UEU, Bilbo.

